Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

2927

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 13koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena, ELN-85-2010-X administrazio espedientea -986/11-2, 989/11-2 eta 990/11-2 prozedura arrunteko administrazioarekiko auzi errekurtsoei buruzkoa- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salara bidaltzeko xedatu eta interesdunak izan daitezkeenak epatzen dituena sala horretan ager daitezen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak ELN-85-2010-X espedientea bidaltzeko eskatu du. Izan ere, 986/11-2 (SIPE Ertzaintzaren Lanbide Sindikatua), 989/11-2 eta 990/11-2 prozedura arrunteko administrazioarekiko auzi errekurtsoak jarri dira, Herrizaingoko sailburuaren 2011ko otsailaren 10eko Aginduaren aurka. Agindu horren bidez, Euskal Herriko Poliziaren hautespen-eta prestakuntza-araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 57.1.b) artikuluan jasotako Ertzaintzaren Egiterapen Eskalara eta Udaltzaingoen Eskala Teknikoko komisario eta komisario-ondoko kategorietara sartzeko gaikuntza-ikastaroen eduki orokorrak eta balioesteko erak finkatzen dira (2011ko otsailaren 23ko EHAA, 37. zk.).

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau

EBATZI DUT:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salara bidaltzea eskatutako administrazio-espedientea.

2.– Interesdunei epea jartzea, egoki baderitzote, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan ager daitezen –986/11-2, 989/11-2 eta 990/11-2 prozedura laburtuetan–, eta euren interesen alde egin dezaten. Epe hori, hain zuzen ere, 9 egunekoa izango da, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 13a.

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2927

RESOLUCIÓN de 13 de mayo de 2011, del Director de Régimen Jurídico y Servicios del Departamento de Interior, por la que se dispone remitir a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo n.º ELN-85-2010-X con motivo de los recursos contencioso-administrativos seguidos en procedimiento ordinario n.º 986/11-2, 989/11-2, y 990/11-2 y se emplaza a los posibles interesados para que puedan comparecer ante dicha Sala.

Por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha sido requerida la remisión del expediente administrativo n.º ELN-85-2010-X con motivo de los recursos contencioso-administrativo que se siguen en procedimiento ordinario n.º 986/11-2, interpuesto por el Sindicato Profesional de la Ertzaintza (SI.P.E.), n.º 989/11-2, y n.º 990/11-2 contra la Orden del Consejero de Interior de 10 de febrero de 2011 por la que se determinan los contenidos generales y los modos de evaluación de los cursos de capacitación para el acceso a la Escala Ejecutiva de la Ertzaintza y a las categorías de Comisario y Subcomisario de la Escala Técnica de los Cuerpos de Policía Local previstos en el artículo 57.1.b) del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco (BOPV n.º 37, de 23 de febrero de 2011).

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 49 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa,

RESUELVO:

1.– Remitir a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo solicitado.

2.– Emplazar a los posibles interesados para que en el plazo de 9 días, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan, si lo estiman oportuno, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en los procedimientos ordinarios n.º 986/11-2, 989/11-2, y, 990/11-2, en defensa de sus legítimos intereses.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 2011.

El Director de Régimen Jurídico y Servicios,
IÑAKI CALONGE CRESPO.